

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Caballero presidenteordeak administrazio elektronikoan datuak babesteari buruzko jardunaldia ireki du

Saioa NAPIk antolatu du eta informazio pertsonalaren tratamenduan adituak diren hiru legetarik parte hartu dute

Viernes, 10 de junio de 2011

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak, ostiral honetan, administrazio elektronikoaren alorrean datu pertsonalak babesteari buruzko legeria betetzearen inguruko jardunaldia egin du. Saioa Foru Administrazioan datuak kudeatzen dituzten arduradunei indarrean den araudiak ezartzen dituen betebeharren berri emateko, betebeharrak nola bete behar diren informatzeko eta araudia aplikatzeari buruzko zalantza eta alderdi praktikoak ebazteko izan da.

Jardunaldia Iruñeko NAPIren egoitzako (Navarrería kalea 39) Pío Baroja aretoan izan da eta 150 pertsona izan dira bertan. Javier Caballero Martínez jarduneko Nafarroako Gobernuko presidenteorde eta Lehendakaritzak, Justizia eta Barne kontseilariak ireki du ekitaldia. Mintzaldian, ondoan izan ditu Gregorio Eguilaz Gogorza Funtzio Publikoaren jarduneko zuzendari nagusia eta Tomás Rodríguez Garraza NAPIko idazkari nagusia.

Presidenteordeak azpimarratu du "askotan pertsonalak izaten diren datu ugari tratatzeak" ekar ditzakeen deribazioak sakon aztertu behar direla. Hori dela eta, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak garatzen ari dira.

"Lehenago aurreikusi gabeko arazoak sortzen dira, lehenago arazo horiek sortzea ezinezkoa zelako, eta gizarte harremanetarako aukera berriak azaltzen



Gregorio Eguilaz, Javier Caballero presidenteordea eta Tomás Rodríguez Garraza, saioaren hasieran



Iruñeko NAPIren egoitzan egin den jardunaldira joan direnak

dira, baita administrazioen artekoak ere. Sekulako alde onak izan arren, alde on horiek alboko eragin negatiboak ekar ditzakete datuak bildu, gorde eta hedatzeko modu elektronikoki hori baliatuz. Gainera, pertsonak kaltetu daitezke, izan ere, haien bizitzako arlorik barnekoenarekin loturiko datuak babesteko eskubidea urratzen zaiela uste baitezakete", nabarmendu du.

Hori dela eta, Caballeroren ustez, "prestasunez" jardun dira mundu mailan zein Europar Batasunean, estatuan eta Nafarroan legeak egin eta "datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea bermatzen duten" erakundeak sustatzeko orduan.

Nafarroaren kasuan, azpimarratu du administrazio elektronikoa garatzeari loturiko zerbitzu eta baliabideen (besteak beste, erregistro nagusi elektronikoa, zerbitzu elektronikoen katalogia, Herritarren Karpeta edo Open Data Navarra ataria) erabilerarekin batera "segurtasunari loturiko programa bat abiarazi dutela; hala, estatuko segurtasunaren eskema berriko parametroak ezarri eta Nafarroako Gobernuak segurtasun informatikoa kudeatzeko eredu estatuko administrazio nagusiko estandar berrietara eta nazioarteko joera berrietara, Europar Batasuneko joeretara bereziki, egokitzen da".

Aurrez aurreko tratuko berme berberak

"Administrazio elektronikoa eskertzen, zerbitzu publikoak aurrez aurrekoak ez diren kanalen bidez eman daitezke, eta aurrez aurreko zerbitzu tradizionalen berme juridiko, administratibo, segurtasun eta kalitate bera eskaintzen dute", esan du.

Jardunaldiari [hasiera emateko mintzaldia](#) María Arias Pou datuen babesaren aditua den abokatuak eskaini du, eta 9:15etik aurrera "Cumplir la protección de datos en el entorno electrónico" izenburua duen hitzaldia eman du. Mintzaldian, fitxategiez eta horien tratamenduz arduratzen diren langileek bete behar dituzten baldintzak, euskarri elektronikoa datuen legeko tratamendurako oinarritzko arauak (zein datu eska daitezkeen, herritarrei edozein kontu noiz eta nola jakinarazi behar zaien, herritar baten datuak tratatzeko orduan nola bideratu behar den haren baimena, zer motatako informazioa jakinarazi dakiokkeen hirugarren bati edo nola bermatzen den informazio horren segurtasuna) eta zehapen araubideko berritasunak bezalako gaiez jardun da.

11:30ean, datuen babesaren berritasunei eta etorkizunari buruzko mahai-ingurua egin da, eta letradu berak moderatuko du. Ertabaida hori lehenago Francisco Javier Enériz Olaechea arartekoak "[Los ciudadanos como usuarios de servicios públicos electrónicos](#)" gaiari buruz eta Antonio Troncoso Reigada 2002 eta 2009 urteen artean Madrilgo Erkidegoko Datuen Babeserako Agentziako zuzendari izan zenak "[Un repaso al futuro próximo de la protección de datos](#)" gaiari buruz egin duten mintzaldiaren ingurukoa izan da. Enerizek datuen titularren eskubideez edo administrazio publikoen arteko informazio emakidez aritu da eta ararteko gisa bizi izan dituen esperientzia praktikoa batzuk aurkeztu ditu. Troncoso, bestalde, Interneten ahazteko eskubidea izateaz (hau da, herritarrek duten eskubidea haien intimitatea edo ohorea ukitzen dituzten datuak saretik kentzeko, Interneten jarri dituztenak beraiek izan badira ere), informazio publikoa eskuratzeko eskubideaz eta administrazioak informazioa isilpean gordetzeko duen beharraz jardun da.

Jardunaldia amaitzeko, kontu praktikoa aztertu eta zalantzak argitzeko tartea eskaini da, eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziak eta egiteko hori duten erkidegoetako agentziek ebatzitzeko kasuak eta zehapen prozedurak ere azaldu dira. Saioa 14:15ean amaitu du Gregorio Eguílaz Gogorza NAPIko zuzendari kudeatzaileak.

Jardunaldia honako huentzat izan da: erakundeetako ordezkari, zerbitzuetako eta erakunde autonomo eta antzekoetako zuzendari nagusi, udaletxeetako idazkari, enpresa publikoetako arduradun, prestakuntzako teknikari eta administrazio publikoko langilentzat oro har edo Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioako datuak bete, kudeatu eta kontrolatzeaz arduratzen direnentzat.

NAPIk 24 jardunaldi sustatu ditu 2007-2011 legegintzaldian

Amaitzear dagoen legegintzaldian NAPIk 24 jardunaldi antolatu ditu guztira, prestakuntzarako eta

hedapenerako, eta administrazio publikoko 3.000 enplegatu baino gehiago joan dira. Landu diren gaien artean hauek dira azpimarratzekoak: Forua Hobetzearen 25. urteurrenaren eta NAPIren 25. urteurrenaren ospakizunak eta estatuko eta foru legeak zein lurzoruaren kudeaketari, administrazio elektronikoari, kontratazio publikoari, Lisboako Itunari edo zerbitzuetako zuzendaritzari buruzko legeak indarrean sartzea eta horien garapena aztertzeke saioak.

Halaber, erkidegoetako eskubide zibilei, datuen babesari, Foru Erkidegoko erakundeen funtzionamenduari (hala nola arartekoa, Comptos Ganbera, Nafarroako Kontseilua, Lehendakaria, Gobernua eta Parlamentua) buruzko saioak edo giza baliabide eta baliabide materialen (finantza-krisirako, funtzio publikoko jardun onen kodeetarako edo optimismo burutsurako erabili zirenak) kudeaketari buruzko jardunaldiak antolatu dira legegintzaldian zehar.